

Emiliano Zapata'ren jarraileak Mexiko'n iraultzalari

Izenez bakarrik Zapata'ren jarraileak, Mexiko'ko inditar eta nekazari gaixoei Zapata nor izan zen ez bait dakite. Kulturaren usairik ere gabeko jendeak dire bc inditar eta nekazari arlote mixeable aiek.

Iraultzara jeikitzeak bai, arrazoirik aski badute goseak amorratzen bizi diren errukigarri guzti aiek, bañan ez dire iraultza bat prestatzeko gauza. Askoz gutxiago iraultza orri Zapata'ren izenez apaintzeko! Iñoz Zapata'rik izen denik ere ez bait dute jakingo.

Gizon txukuna ta erriko jende txiroaren maitale aundia azaldu zen Zapata 1910'eko iraultzan. Lagun ustel batek il zuen, saldukeriz, 1919'an. Alperrikakoa gertatu zen, iraultza artan ixuritako odol guztia; garailleak, -500 urte lenago Espaini'ko erregeen izenean inditarrei lur guztiak kendu zizkieten aien semeak-, len baiño aberatsago irten bait ziren borrokatik. Eta inditarrak eta nekazaritazatik bizi ziren gizaiaxoak, - inditarrak edo erdi-inditarrak auek ere-, len beiño askoz okerrago.

Inditarrak ez ditu iñork maite Ameriketean. Zine-mintza edo «zinek pelikulen» bidez badakigu nola izen diren erabiliak inditar gaixo oiek Ipar-Amerika'n. Bc ez dire Ego-Amerika'n ere askoz obeki erabiliak izen. Ez da illabete izengo, Mexiko'n mihiolari egonda, andik etorri berria den apez txit jakintsu batek esan ditek-

la, Mexiko'n gaur egun bertan, inditarrak zikiratuak izeten direla toki batzuetan.

Kolonbi'n, Europa'tiko turistentzat, inditarren «safari» batzuk eratu izen dire. Safari zer den badakizu: Leoi, elefante, katamotz eta orrelako pizti basatien eizaketa. Orrelako pizti ez da, ordea, Ameriketean. Orregatik, inditarren safariak prestatzen zituzten Kolonbi'n, Amazonas- aldeko basoetan, Afrika'n leoiak bezala, Kolonbi'n, inditar gizon-emakumeak eta mutil-neskatoak tiroz il-tzeko.

Bostenbat urte izengo dire, ori munduan jakin zela..., eta debekatu zela. Baña, nork daki baso illun aietan orain bertan zer gerta ditekene?

Badire, bai, beren buruei «indigenistas» esaten dietenak. Bañan auek ere ez dute inditarrik maite. Soilki «Azteka», «Maya» eta «Inka» izeneko inditar-kultura zarrak dituzte maite.

«Yo soy muy indio, Padre», esan zitten bein bere jauregiko lan-gelan Ekuator'ko errepublikaren kultur-ministroak. Jaun arrek ordea, ez zun indi-odol-tanta bat bere zaiñetan, eta Ekuator'ko inditarrak pobreenetakoak dire. Jaun ura «indijenista» bat geiago besterik ez zen.

Inditarren egoera gaitzak bi sustari ditu:

- Aurrenekoa, nekazaritarako lurrik ez izetea. Zuten guztia ken-

du bait zieten, duela 500 urtez gero Europa'tik joandako jende kontzientzi-gabeek. Errepublika aietan, aberastasun guztia 200 edo 300 familiena da, ta, gure lotsarako, famili oiek geienak, -Ekuator'ko ministro arek bezala-, eusko- abizena dute.

- Bigarrena, kultur ooren falta. Erriko jende landerrak ez daki irakurtzen ere. Ez daki deus!

Orregatik, jende aiek ez dire iraultza bat eratzeko gai. Maiz nasi oi dira Mexiko'k ain ugari ezagutu dituen iraultzetan, bañan atzipeturik eta aberastasun geiagoren billa zebiltzen buruzagien esanera.

Gaur ere, ziur, orrelako buruzagien serbitzura dabilte, oartu gabe, Mexiko'ko «zapatistak». Izkilluz ondo armaturik sartu dire burrukara. Inditar gaixok ordea ez dire, berak bakarrik, izkillu oiek lortzeko gauza. 2.000 borrokalarrien taldea osotzen dute. Inditarrak ez dire, beren kasa, orrelako talde bat eratzeko gai. Doñu txarreko oiak darabilzkit: «Ez dugu Laterri Alkartuekin eta Kanada'rekin 'libre comercio' edo salerosketa yarererik nai», edo «Zanpatu dezagun kapitalismoa eta agintzen jarri sozialismoa». Oiu oiek ez dire inditarrak asmatuak; ez dakite bc «libre comercio» ori, edo «kapitalismoa», edo «sozialismoa» zer izen ditezkeen!

Ezta Kanada'rik ba'dan ere.

Latigí'tar Bixente



Itzaldia Iriberrin.

Arakil'go Iriberrin euskara bizkortzen

Arakil'go Iriberrin eun ta berrogeitamar biztanleko erikxa dugu. Aralar eta Satrustegi'ko mendi tartearen erdiko ibarran datza, Irurtzun'dik Etxarri'ra dijoan bidean. Udazkeneko egun eder batean ezagutu genuen. Eliza erdian dago, ondoan enparantza eta inguruan etxe sendoak.

Egurasten nenbilen. Antziñako garaietako euskal giroa jakin nai nuen. Gizaseme sendoa urbildu zitzaidan, Satur Sarasa zeukan izena, 73 urtekoa. Berak etzuen bein ere euskeraz ikasi. Amona oso euskalduna zeukan. Elizan etzuen bein ere euskeraz entzun; apaizak etzekiten, irakasleak eraldunak. Nunbait amonak zeukan anai bat, Inazio Aizkorbe, apeza gero jesuslaguna izana, oso euskal izlari ona. Bertako semea zan, Enuzalarena etxean jaioa. Aralar'ko San Migel'en egiten zituen itzaldiak. Alfonso XIII garrena igo zenean baño gizaseme geiago biltzen omen zitzaizkion euskeraz entzute- ra. Azkeneko abestia euskeraz entzuna, guda aurretik zan, dagonilleko Amabirjiñaren egunean, erriko ibillaldian; Gure Aita ta Santa Maria abestutzen zuten. Etxeen euskal izenak eman zizkidan: Loperena, Aresorena, Aldazarena, Enuzalarena, Juanberena, Franzerena, Goikoetxea, Azpirozerena, Garraztegia, Etxezarra, Arnika, Garjon, Biana, Arangoa, Albaite-rua, Mazelena. Bordetako izenak ere alakoeak: Usarre, Muskerdi, Urbaran, Armasago.

Idiei beti euskeraz egiten zien: «Aida-esti-goitiburu» erranez. Satur Sarasa ainbertze berriengatik eskertzen nula, auxe erran zidan: «Orain mina dut euskeraz ez daki-dalako». Euskaldun bakan batzuek arkitu nituen. Maria Luisa Arbilla oso ongi egiten du. Irurtzun'go ikastetxean, bere aurrarekin arkitu nuen. Ama dute Etxarri'koa. Anai bat dauka oso euskalduna, Jesus Arbilla; euskara zaintzen Gazteiz-ko Udalan lana egiten du. Orain

dala urte batzuek bertako seme multzo bat esnatu zuen, baita euskararen gosea sartu. Ba daude bertze bi gipuzkoar euskaldunak eta Joakina Biana Zarrantzatarra (Imoz'koa). Bertze bi erriko seme euskaldun berriekin topatu nintzen, biyek arrigarriak. Gaizka Unanue'k 36 urte ditu, Iruña'n Telefonikan lana egiten du. Euskara ikasten bizpauru aste, Lesaka'n igaro ditu. Euskeraz semearekin egiten du. Bertze gaztea euskaldunberria Sergio Ugarte, 26 urtekoa. Filolojia Gazteiz'en ikasi du. Lana, euskal serbitzuan, Nafarroa'ko Gobernua dauka. Euskara, lasai, jator, errex egiten dute bi gazte auek. Ziñezko euskaldunak ditugu; Nafarroa'rentzat aitxorra.

Erriko aurrak, Irurtzun'go ikastetxean daudenak ezin ditugu aztu. Den denak euskal programan sartuak daude: Alaitz Arbilla, Maite Olague, Arantxa Olague, Amaya Unanua. Ori etorkizuna Nafarroa'rentzat!

Orain ekintza eder bat aipatu nai nuke; egun orain bertan, Azaroaren 12'n, arratsian, itzaldi bat zeukaten, erriko biltokian. Gaia berriz ederra: «Euskara Arakil'en». Amabost gizaseme agertu ziran. Antolatzailea Pelo Astiz, Ihabar'ko semea, Arakil Udaloak maikidea, kultura serbitzuan Arbizu'n dauka lantokia. Ama Arribe'koa (Araiz) du. Euskaldunberria dugu ta langille amorratua, jo ta ke, euskara Arakil'go ibarran zabaltzen ari dena. Billera ortan asmo sakon baten jabe egin giñan: «Euskarak sortuko du Nafarroa berria». Itzaldiaren ondotik elkarizketa sendoa sortu zen ta luze iraun. Euskara maite dute Iriberrin.

Ezin aztu, apez euskalduna daukatela orain, Alejandro Lizarraga, Dorrau'ko (Ergoyena) semea. «Gure Aita» ta abesti batzuek euskeraz mezetan asi da sartzen.

Euskara berpiztu da berriz Arakil'go Iriberrin.

Latxaga

Oroitzapenak

Gazte denborako oroitzapenak beti badute garrantzi haundia batez ere euskal kulturari lotuak balin badira. Gerra aitzineko Euskal Billarak eta bertsolariak gogan dauzkat. Oroitzen naiz nola etortzen ziren urtero Erratzura Donostiako Eusko Gaztedikoak. San Jaun aitzinean egiten zuten bidai hori Erratzura eta yende aunitz biltzen zen euskal beste hortara. Bertsolariak eta euskal erromeria billera horren oiñaria. 1936-ko Urtarrilaren 19-an ospatu zen Donostiako «Victoria Eugenia» antzokian, Euskalerriko Bertsolari Txpalketako Azken Saio Nagusia. Sekulako arrakasta ukan zuen bertsolari besta horrek, sarrera guztiak saldurik kanpoan hainbertze yende gelditu zen, Antzokian lekuri ez zelakoz.

Bederatzi bertsolari negurtu zituzten eta hemen erakutsiko dugu Txapelketa hortan parte hartu zutenak: Zepai Errezil, Dargaitz Amaiur, Etxeberria Andoain, Txapel Azpeti, Iriarte Banka, Harriet Aldude, Txirrita Altza, Uztapide

Zestua, Lujanbio Errenderi. Eltzaburuko Mutuberría ere izendatua zagon Billera huntarako baina ez zen etorri. Gai-jartzaile Iñaki Eizmendi «Basarri» eta Epai-maiko Yaunak, Ariztimuño, Aitzaga, Leizaola, Lekuona eta Olaizola. Mota guztietako gaiak erabili zituzten eta hoiaren artean hauxe: «Gerra zitalaren aurka» bertsolari guziek bertso bana. Hemen Txirritarena:

Zenbait errezo egin izan det nere denboran elizan, ta pozik nago ikusirik pakian nola gabiltzan, ni naizen kobarderikan iñor ezin leike izan, semeak gerrara ez yoatetik mutil-zar gelditu nitzan.

Bertsolariak ongi neurtuak izan ziran eta Epai-Maikoek holaxe erabaki zuten: 1. Txirrita Txapeldun. (Saria 150 pta.) 2. Uztapide (100 P) 3. Zepai (75 P) 4. Dargaitz (5 P) 5. Iriarte 25 P. Sari gabeko bertze bertsolari guziei, 25 P bakotxari eman zizkieten. Bertsolari zaharrenari 25 peztako Saria Txirrita-ren-



tzat eta gaztenari Iriarte-ri bertze 25 peztako Saria.

Oroitzapen hunkigarriak lehena-goko bertsolarienak, bihotzaren erdian kokatuak.

M. Izeta

Berri ona

Gizon eta emakume izan

«Zatozte Nirekin» (Mk.1,14-20)

GAUR zortzi idatzi genuen lantxoan galdera bat egiten genuen: «Merezi ote du?» Alegia, Jesus-en jarraitzaile izateak merezi ote duen. Gaurkoan zuzen deitzen digu: «Zatozte Nirekin».

Fedeak digunez gizon-emakume oro Jainkoaren irudira sortua eta egiña da, eta gizaldien aurretik aukeratua. Go-goan artu bearrezko egia.

Baiña egungo gizartea apurturik bizi da; itzuli eziñeko bidean zurrunbilloka doa; kontsumoaren atzaparretan itota aurkitzen da. Gizon- = emakume anitz dira -eta gazteak ere bai- «depresioa» deituriko gaisotasunak jo dituenak. Atse-ginkeria utzi eta eguneroko bizitza gogorrera aldatu bearrak sortzen du zoritxarreko «depresioa».

Gauetik goizera diru-etxeak porrot egiten dute; lantegiak

itsi egiten dira; aste-buruetan gero ta alkool geiago edaten dute gazteek; oporretara joateko dirua eskatu bear izaten dute familia batek baiño geiagok; astean zear ondakiñak jango badira ere, igandean jatetxe eder eta garestira joan bear da bazkaltzera.

Kezkati eta kejati bizi gera: ango guda ta emengo indarkeria, Irugarren Munduko gosea eta Laugarren Munduko eriotzak... Ala ere nere ezur-mamian sentitzen ez badut, leenean jarraituko dut.

Egia erran, au guztia ez da berria gizakiaren historian. Beti orrela izan da eta orrelaxe egin da historia. Zer egin, ordea? Ez da erreza asmatzea. Geure buruari gogor egitea eskatzen digu eta ori ez zaigu asko gustatzen. Jesus zorrotza da bakoitzari deitzeko garaian. «Zatozte Nirekin». Eroso-

tasunik ez dugu izango, aintzakotzat ez gaituzte artuko, irainduak izango gera... gurutzea izango dugu saria.

Egiatzko bokazioa bizi duenak, kristauak, alegia, gaurko munduak eskaintzen duanaren aurka borrokatu bearko du. Kristauak auxe erakutsi bearko du: munduari eta munduko atseginkeriari aurka egiñez pozik eta zoriontsu bizi daiteke-la.

Jesus-ek badu gure bearrik, orregatik egiten digu dei. Munduak badu aldatzearen premiari, gure eginkizuna da. Ala eskatzen digu kristau izatearen konpromisoak. Kristaua da, noski, etorkizun onaren bideak urratu bear duena. Eta lan orri uko egitea Jainkoa bera zalantzan jartzea da.

Entzun eta jarrai dezaiozun Jesus-ek zuzentzen digun deiari.

Artzalluz'tar Joxemari